

## FUTBOLA ALA EZAGUTZA?

Ez daukat futbolaren ekonomiari buruzko datu zehatzik, baina susmoa dut ondoko hau ez dela hipotesi oso zoroa: herrialde batek Ikerketa eta Garapenean (I+G) gastatzen duena eta futbolean gastatzen duena korrelazio negatiboan daude; gero eta diru gehiago futbolean, orduan eta gutxiago I+Gn, eta alderantziz. Barne Produktu Gordinarekiko %1,94 gastatzen du Europako Batasunak (EB), %2,70 Amerikako Estatu Batuek eta %2,98 Japoniak. Futbolean alderantziz, seguru. EBren barruan futbol liga garestienak dituztenak, Italia eta Espainia, atzekaldean daude I+Gn: %1,04 eta %0,97, hurrenez hurren. (Datuak 2000koak dira).

Euskal Herriak futbolean egiten duen esfortzua kuantifikatu beharko litzateke, baina EAEk I+Gn egiten duena kaxkarra da konparazioan, nik uste (ez daukat Nafarroa eta Iparraldeko daturik, barka). I+Gn ere ez daukagu euskal selekziorik, nazioarteko lehiaketa / elkarlan ofizialetan aritzeko ordezkariarik, alegia. Baina I+Gn azpiegiturari eta harrobiari ez zaie lehentasunik ematen. Inbertitzen den dirua gutxi da (%1,5 2002an, Irlandak 2000n zuena baino gehixeago) eta ekimen pribatuari ez zaio I+Gn inbertitzeko abantaila fiskalik ematen. Aurreko asteotan esan dutenez, Eusko Jaurlaritzaren (EJ) aurrekontu berriek %110eko igoera arrikusten dute I+Gn. Baina %1,7ra iristea da helburua, EBk 2000 urtean zuen batazbestekotik behera, alegia. Kontuan izan, gainera, EBko estatuek 2010erako %3ra iristeko konpromisoa hartu dutela. Kontrakoa esan badute ere, gezurra da EAE Europako mailan dagoenik edo maila horretara iristeko bidean denik, eta Espainiako batazbestekotik gora egotea ez da oso harro egoteko moduko meritua. Gainera, igoera hori EJKo Industria sailaren aurrekontuari lotutakoa da, ez Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketakoari. Kataluniako Generalitateak ez bezala, EJK ez du ikerketaren etorkizuna unibertsitateetan ikusten, sobrare. (Unibertsitateak eta Ikerketa Hezkuntzarekin batera kudeatzea ere gaur errore handia da, nik uste, baina hau beste kontu bat da).

Herri baten etorkizuna kontu hauetan erabakitzen da neurri handi batean. Nik nahiago dut Suedia eta Finlandiaren eredua, Espainia edo Italiakoa baino. Finlandiak %3,67 gastatu zuen 2000n eta Suediak %3,78; EBren 2010erako helburua aspaldi erdietsia dute. Jakina, futboleak ez dute askorik destakatzen. Euskal Herriak zer nahi du, futbola ala ezagutza?